



Lan erreformaren azken berriak

Alderdi politikoek akordaturako eta onartutako azken zuzenketak egoera are eta zailagoan uzten gaituzte GFI Norten.

Pasa den Maiatzaren 25ean lan-erreformaren "filmea" bukatutzat eman zen. Hona hemen gidioa:

- Otsailaren 10ean, PPK, "dekretuztar" baten bitartez, lan egoera hankaz gora jarri zuen Espainian. Dagoeneko gakoak kontatu genizkizuen. Egunerokoa benetako asmoa erakusten ari zatazizkigu GFI Norten: **onurak handitzea langileen kontura.**
 - Martxoaren 15ean, dekretua lege-proiektua bihurtzen da. Zer esan nahi du horrek? Zuzenketak jar daitezkeela. Eta zein da horren ondorioa? Hasierako dekretua alda daitekeela, eta horren ondorioz gure lan-baldintzak egin ditzaketela okerrera. Zuzenketa garrantzitsuenak azaltzen dizkizuegu:
 - PP & CIU. Jatorri-ekonomikoaren botatzea. Hori frogatzen duen hiru hiruhilekoren diru-sarreraren jaitziera lehengo urteko epe berberarekin alderatu behar da.
 - PP & CIU. Diru-sarreraren edo salmenten bi hiruhilekoren jaitzierak hitzarmen batean akordaturakoa eragin barik (soldata-erregimena ez aplikatzeko klausula) onartzen dio enpresariari.
 - PP & CIU. Botatze kolektiboa. Kontsulsten epea arbitraje batek ordezkari dezake. Lan-agintaritzari egindako komunikazioa informatiboa baino ez da izango. Botatze kolektiboengatik egindako prozesu judizialen pilatzea onartzen da. Enpresak salaketa jartzen badu LHKn (arbitrajea) jarritako bakarkako salaketa guztiak bertan behera geratzen dira. Pentsa ezazue zer gerta daitekeen enpresako batzordea nahierara jartzen bada.
 - PP & CIU. Lan-jardunaldia. Enpresariak zure lan-jardunaldiaren %10 antola dezake ezohiko moduan.
 - PP & Foro Asturias. Hitzarmenaren ultrajarduera 2 urtetik urte bakar batera pasatzen da. GFI Norten, 2013.ko Abenduan hitzarmen barik geratuko gara.

Hauek guztiak zuzenketak baino ez dira. Onartutako lan-erreforma askoz neurri gehiago ditu, [dagoeneko azalduetakoak](#), eta galdetu ahal dizkizuzuenak (elagfi@gmail.com).

Iturriak (2012.ko ekainaren 26ra arte)

- [RTVE](#). "Enfrentamiento por las enmiendas a la reforma laboral".
- [La razón.es](#). "26 enmiendas a la reforma laboral pactadas con la oposición".
- [Expansión](#). "El PP pacta con Foro Asturias limitar a un año la ultraactividad de convenios".
- [El progreso](#). "El Congreso da su aprobación al proyecto ley tras pactar 46 enmiendas".

GFI Norteko soldata-erregimena ez aplikatzeko klausulari buruzko egungo egoera

GFI Nortek Batzordearen proposamenari uko egiten dio: Egonkotasunaren truke langileen koherentzia eta sakrifizioa.

Ekainaren 25ean bilera izan genuen enpresarekin. **Gure azken proposamenari uko egin zion:**

- Botatzei dagokionez, enpresak lan-erreforma erabili nahi du. Urteko 20 eguneko kalte-ordaina baliatuta, jardunaldi murriztua dutenak bota nahi ditu.
- Enpresak **ez** du gure hitzarmena luzatu nahi beste bat egon arte. Iraungitze-data jarri nahi du: 2014ren Abendua.
- Soldata-igoerari dagokionez, enpresak aurten ezer ez ordaintzea proposatzen du, eta "tauletan" daudenei %3 2013an ordaintzeko borondatea erakutsi du; besteei, zor digunaren %1.5 2013an eta beste %1.5 2014an ordaindu nahi du.

Egiten diren aurrerapenak kontatuko dizkizuegu.

Laburrak

- **Antzinasuna EZ da xurgatzen.** Auzitegi Gorenaren sententzia, 2012/04/19, Estatu hitzarmenari dagokionez: "No es posible la compensación y absorción salarial cuando no se trata de conceptos salariales homogéneos y cuando, además, el propio convenio colectivo de aplicación ordena a respetar los derechos adquiridos a título individual". [Iturria: ELA](#)
- EBko Justizia Auzitegiak ostegun honetan ateratako sententzian Federación de Asociaciones Sindicales-i (FAGSA) arrazoia eman dio, **"todo trabajador tiene derecho a disfrutar de sus vacaciones anuales retribuidas equivalentes a la duración de un período de baja por enfermedad en un momento posterior"**, ezgaitasuna hori noiz gertatu den aintzat hartu barik. [Iturria: Europress](#)
- ELAK eta Galiziako CIGek Espainiako Bankuaren Gobernadoreen eta Gobernuen Ordezkarien kontrako salaketa jarri dute. ELA eta CIGeko idazkari nagusiek Auzitegi Gorenean jarri dute esandako salaketa, kontu publikoen arpilatzearen arduradunak izateagatik. [Iturria: ELA](#)
- ELAK banku eta kutxek alderdi politikoei "barkatutako" kredituen kopurua argitaratzea exijitzen du. Dena gezurra borobila izan da. Bankian gertatutakoa (235000 milioi euro zor-publikoa bihurtuko dira eta murrizketa gehiago ekarriko dituzte) hipokrisia eta ardura-falta argi eta garbi erakusten du; eta garrantzitsuenak, botere-ekonomikoei eta Gobernuak duten lotura sendoa. [Iturria: Europress](#)